



BIZKAIKO TENIS FEDERAZIOAK 24KO ABENDUAREN 19AN EGINDAKO BATZAR NAGUSIAREN EZOHIKO BILKURAREN AKTA

19:30ean, 2. deialdian, Bizkaiko Tennis Federazioak Bilbon duen egoitzan, horretarako deialdia garaiz eta behar bezala egin ondoren, eta Batzar Nagusiko kide hauek bertan direla:

- Jorge Barrie Borrás jauna (Bizkaiko Tennis Federazioko lehendakaria eta Kirolarien Estamentuko ordezkaria) (Fadura eta Lonbo Arrigorriagako T.K.ko ordezkaria)
- Mikel Núñez Bueno jauna (Bilbo ordezkatzuz)
- Josu Ortiz de Zarate Ávila jauna (Getxoko Hondartzen TZ ordezkatzuz)
- José Sánchez Tejada (Santurtziko TZ ordezkatzuz)

Elena Ruiz de Peña Añibarro ere bertan da (Bizkaiko Tennis Federazioko idazkari administratiboa)

Honako erabaki hauek eztabaidatu eta hartu dira:

I- Hauteskunde Erregelamendua onartzea, hala badagokio.

Jorge Barrie jaunak gai-zerrendako 1. puntua aurkeztu du, eta, azaldu duenez, urte olinpikoa denez, hauteskunde-urtea da, eta Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko eta lurraldeetako federazioetako hauteskunde-prozesuei buruzko Agindua onartu ondoren, Hauteskunde Erregelamendua onartu behar da. Erregelamenduak aldaketak ditu aurreko hauteskundeetarako duela 4 urte onartutakoarekin alderatuta. Hauteskunde-araudiaren zirriborroa biltzarkide guztiei bidali zaiela esan du, eta horri buruz ezer esan behar duten galdetu die bertaratutakoei.

Bozketa egin da.

Aho batez onartu da.

II. Hauteskunde Batzordea izendatzea.

Bertaratutakoei azaldu zaie, Bizkaiko Tennis Federazioaren Hauteskunde Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, Batzar Nagusiari dagokiola Hauteskunde Batzordea izendatzea, urte olinpikoan egingo den hauteskunde-prozesua hasi aurreko bilkuran. Jakina denez, Hauteskunde Batzordea hiru titularrek eta beste horrenbeste ordezkok osatzen dute.



Federazio honetako idazkaritzan hauteskunde-organoa osatzeko 8 proposamen jaso dira. Hautagai-zerrendak aukeratu dira eta honako hauek dira hautatuak:

- Titularrak:
 Presidente: José Sánchez Tejada
 Idazkaria: Carmen Ilarduya Gandarias
 Batzordekidea: Jorge Novoa Fernández

- Ordezkoak:
 Ramon Felix De pablo Bascaran
 Eduardo Hurtado Prieto
 Ainhoa Núñez Bueno

21:00etan eman zaio amaiera biltzar-bilerari, beste aztergairik gabe, eta hauteskunde-organoko kideei izendapenaren berri ematea erabaki da, ahalik eta lasterren has dezaten hauteskunde-prozesua.

Alfredo Chamizo
FBTko idazkaria

Jorge Barrie O.E.
FBTko lehendakaria